

DESGAITASUN PSIKIKOA ETA BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN GAZTEENTZAKO AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO PROGRAMA

Programa horretako partaide den APNABI entitatearen zentroa ikusten izan dira gaur Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua eta BBK-ko ordezkariak.

Areetako APNABI zentroak 18 plaza ditu, eta Diputazioak bertako aisialdiko programak finantzatzen ditu. Iaz jarri zen martxan proiektua, BBK-k lokala laga eta egokitze lanak egin ondoren.

Getxo, 2014ko ekainaren 2a. Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatua eta Gorka Martínez BBK-ko Gizarte Ekintzako Zuzendaria Areetan izan dira gaur APNABI Bizkaiko autisten eta autismoaren espektroko gaitzak dituztenen gurasoen elkarteak ireki berria duen zentroa bisitatzen. Mikel Pulgarin APNABIko lehendakariak egin die harrera zentroa ezagutzera etorri diren ordezkariari. Zentroak 18 lagun hartuko ditu, urteko jarduerak amaitzear daudenak eta aurki, desgaitasun psikikoa edo buruko gaixotasuna duten beste hainbat eta hainbat gaztek bezala, aisialdiko eta denbora libreko programak gozatuko dituztenak.

Zaintza partekatua

Bizkaiko Foru Aldundiak hainba zerbitzu eta sostengu sortu ditu desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna dutenentzat, eta haiek zaintzeko ardura dutenentzat. Sostengu horien artean arnasa hartzeko programak daude.

Arnasa hartzeko programa horien bidez desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna dutenen eta hurbileko zaintzaileen premia puntualei erantzun nahi zaie, hainbat arrazoi edo inguruabarrengatik (esaterako, gaixotasuna, etxean obrak egitea, edo oporrak, eta larrialdiak) denbora labur batez ohiko etxebizitzan jarraitu ezin dutenerako edo egon nahi ez dutenerako.

BBK Obra Social

Teléfono: 94 401 73 37

e-mail: prentsa@obsbbk.com

www.bbk.es - [@canalbbk](https://www.instagram.com/canalbbk)

Areeta zentroa

nota de prensa

Orain dela urtebete irekitako zentro honek bermatzen du adingabe bat ere ez dadila egon etxean geratzera behartuta, eskolako etapa amaitutakoan.

Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen berri bat sinatu zuen 2013ko ekainean APNABIekin (autismoa eta autismoaren espektroko gaitzak dituztenen gurasoen elkartearekin), Areetako eguneko zentroan (Getxon) eguneko arreta zerbitzua emateko.

Foru administrazioaren, APNABIren eta BBKren Gizarte Ekintzaren ahaleginari esker mantentzen da zentro hori. Horrela lortu ahal izan da zerbitzua eskualde mailan ematea eta desgaitasuna dutenen premiei beren ohiko bizilekuaren inguruan, etxeoengandik eta eguneroko ingurunetik hurbil, erantzutea.

APNABI eta BBK

APNABI, Autismoa eta autismoaren espektroko gaitzak dituztenen gurasoen elkartearen xedea da gizarteari zerbitzua ematea, autismoa eta bestelako haur-psikosiak dituztenak artatzeko zerbitzu espezializatua eskainiz.

Arreta osoa, indibidualizatua eta kalitatekoa emateko egiten duen lanaren barruan, APNABIk, beste zerbitzu batzuen artean, eguneko arreta zerbitzua eskaintzen die eskola-garaia amaitu duten gazteei.

APNABI elkarteak eta Bilbao Bizkaia Kutxak 2013ko martxoaren 19an lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten BBK-k Getxoko Paulino Mendibil kalean daukan lokal bat elkarteari lagatzeko eta egokitze lanak egiteko.

BBK Obra Social

Teléfono: 94 401 73 37

e-mail: prentsa@obsbbk.com

www.bbk.es - [@canalbbk](https://twitter.com/canalbbk)